



# BEHE BIDASOAKO hitza

**Astelehena**  
**2010-02-08**

II.URTEA 190.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.BEHEBIDASOAKOHITZA.INFO

## Intzuratik Haizabiara kostan aizolanean garbituko dute

**Hendaia** » Martxoaren 20an eta apirilaren 1etik 7rat itsas bazterra garbitzeko hendaier guzien parte-hartzea galdegin dute

### KOLDO NAUSIA

CPIE Euskal Itsasbazterra erakundeak Hendaia hainbat elkartekin elkarlanean, garapen iraunkorraren eta ingurumenaren aldeko hamar ekintza egingen ditu udaberrian. Abadiako Adixkideen Elkarte ordezkariek jakitera eman dutenez, Initiatives Oceanes ekimenaren baitan, martxoaren 20an herriko itsasbazterren -Intzuratik Haizabiara- garbiketa handia egin nahi dute auzolanean.

Ekintza antolatzeko, lehenbiziko bilera egin zuten joan den otsailaren 4an, Erlaitzako (*Corniche*) bidean dagoen Landareen Udal Erreserban. Gainerat, martxoaren 20ko ekintzaren aitzinetik, antolatetarako bilera nagusia egingen dutela iragarri dute antolatzaileek. «Hendaierren parte-hartzea ezinbestekoa izanen da», CPIE elkarteko ordezkariek nabarmendu dutenez.

Haatik, garbiketa nagusia apirilaren 1etik 7rat egingen dute, Garapen Iraunkorraren Astearen baitan. Iaz 120 bat lagun bildu ziren astebetean, eta Intzurako padura, Txingudi badia, Ondarraitz hondartza, Aragoiri (Abadia erema), eta Erlaitzako itsasertzagarbitzen burubelari aritu ziren.

## Ikasketa Gela zerbitzu berria jarriko dute martxoan Pio Barojan

**Irun** » Ikust-Alaiako eta batxilergo institutuak liburutegiak egokituta, guzira 229 toki eskainiko dizkiete institutu nahiz unibertsitate ikasleei

### JUANMA SARASOLA

Martxoaren 1etik aurrera institutu, unibertsitate, eta bestelako ikastetxeetako ikasleek azterketarako prestatzeko edota beren ezagutzan sakontzeko aukera zabalagoa izango dute Irunen. Izan ere, Irungo Udalak eta Pio Baroja Batxilergo Institutuak izenpetutako akordioaren ondorioz, bai institutuko bai Ikust-Alaiako liburutegietako toki kopurua handituko dute, ikasle nahiz ikertzaile gehiago hartu ahal izateko, eta zerbitzu hobea eskaintzeko. Gaur goizean eman dute elkarlan akordioaren berri Irungo Kultura zinegotzi Fernando San Martinek eta Pio Baroja Institutuko zuzendari Javier Garinek, institutuan bertan. Ikasketa Gela izeneko zerbitzua institutuan egokituko dute, 50 toki eskainita, eta Ikust-Alaia udal liburutegian gaur egun dauden 154 tokiei beste 25 erantsiko dizkiete.

«Udalaren eta Pio Baroja Institutuaren arteko harremana sendoa eta aspaldikoa da. Ongizatearen gizarteak baldintzak hobetzen ditu, eta elkarlan honen ondorioz zerbitzua hobetzen ari gara», azaldu du San Martinek, bertan irakasle aritutako garaia gogoratuta. Ikasketa Gela zerbitzua 2002ko



Aspaldiko da Irungo Udala eta Pio Baroja institutuaren arteko harremana. J.M.S.

uztailean abiatu zutela ere ekarri du gogora. «Urteotan institutuko liburutegiko okupazio mailarik handienak azterketen aurreko hilabeteetan izan dira, hau da, maia-

tzean, ekainean, abuztuan eta urtarrilean. Aldi horietan gehieneko okupazioa 70 bat lagunena izan da, eta urtean zehar 15-20koa, batez beste».

## A Agenda

### » OTSAILAK 8, ASTELEHENA

#### Tailerrak

- **Hendaia.** Sorkuntza tailerra 14:00etan, Ongi Etorri etxean.
- **Irun.** *Tai chi chuan* ikastaroaren hasiera, Kutxako Gizarte Ekintzaren eskutik.

### » OTSAILAK 9, ASTEARTEA

#### Tailerra

- **Hendaia.** *Adierazpen bizia* tailerra, Hondartzako lehen mailako eskolan.

### » GAINERAKOAK

#### Erakusketak

- **Hendaia.** Begiradak elkarteak antolatuta *12 zentimetro*, Merkatu Zaharrean.
- **Hendaia.** *Euskal itsasbazterreko hezeguneak, bioaniztasuneko altxorra* erakusketa, Mediatekan.
- **Irun.** Inauterietako Kartel lehiaketako lanak, Amaia KZn.
- **Irun.** Itziar Mikelperizenaren margoak, Euskadiko Kutxan.
- **Irun.** Euskal Herriko anfibia eta narrastiak. Ramon Aranbarri natura argazkilararen erakusketa, Plaiaundiko Txingudi Ekoetxean.



**IRUN** • XIV. Calahorra Hiria margo lehiaketako 25 lan hautatuen erakusketa. Amaia KZn..

## L Laburrak

### Kirol elkarten topaketa La Pinta sagarnotegian

**HENDAIA** • Herriko hamar kirol elkarteetako ordezkariek topaketa berezia egin zuten joan den larunbatean Zokoburuko La Pinta sagarnotegian. Sagarnotegiko afari giroan, elkarte bakoitzak bere kirol arloak duen egoera azaldu zuten. Sagarnotegiko nagusiak «herriko kirol elkarteak laguntzeko betidanik azaldu duen jarrera

eskertzeko» Sebastian Gonzalez pilotari azkaindarrak sinatutako pilota bat oparitu zioten Stade Hundayais errugbi elkarte presidentean Jean-Pierre Beaucoquestek eta Endayarrak pilota elkarte arduradun Jean-Michel Garaierrek.

### Trenbide eremurako proiektua irundarrei ere aurkeztuko diete

**IRUN** • Herriar Foroaren eskariz, herritarrei trenbideko eremurako



Irungo 'topo'aren geltokia. J.M.S

proiektua aurkeztuko diete udal gobernuko agintariek heldu den ostegunean, 19:30ean, udaletxean. Gipuzkoako Foru Aldundian egindako aurkezpenaren ondotik, Hendaia eta Hondarribiko udalen aurrean azalpenak ematea erabaki zuen Irungo Udalak, eta orain Herriar Foroak «interesa duten irundarrei» azaltzeko eskatu du. Aurkezpenean Herriar Foroan parte hartzen duten kideez gain, auzo elkarteak eta Oiaso 2000 Auzo Elkarten Federazioko kideak ere izango dira.

## F Farmaziak

### » OTSAILAK 8, ASTELEHENA

- **Hondarribia.** P. Almajano. Mendelu kalea, 26
- **Irun.** Olazabal. Berroeta, 3.
- **Hendaia.** 017 telefonora deitu guardiako farmazien berri izateko.

### » OTSAILAK 9, ASTEARTEA

- **Hondarribia.** Erauskin. San Pedro kalea, 22.
- **Irun.** Ruiz Azua. Aiako Harria, 4. Gaez: Olazabal. Berroeta, 3.